

Emakumeen eta gizonen berdintasun-eskubideen defentsarako arloa
Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea

2018. URTEKO TXOSTENA

SARRERA	1
1. ESPARRU OROKORRA.....	2
1.1 Artatutako kasuak, motaren arabera.....	3
1.2 Kasuen gaiak eta maiztasuna:	5
2. BEREHALAKO AHOLKULARITZA:	6
3. IDATZIZ ERANTZUTEN DIREN ETA AURRETIAZKO AZTERLANA ESKATZEN DUTEN KONTSULTAK:	7
4. KEXEN ETA SALAKETEN PROZEDURAK:	8
4.1. KEXEN ETA SALAKETEN PROZEDURAK:	9
4.2. KOMUNIKAZIOAREN ETA PUBLIZITATEAREN INGURUKO 2018KO KEXEN ESPEDIENTEEI BURUZKO EKARPENAK ETA KONTRASTEAK:	10
4.2.1. Publizitateari buruzko kexak, edukien tipologiaren arabera.	11
4.2.1.1. Publizitateari buruzko kexak Defentsa eremuaren eskumen-eremuaren baitan	11
4.2.1.2. Eskumen-arrazoiengatik bideratu diren publizitateari buruzko kexak:	13
4.2.1.3. Publizitatea eteteko eskaerak.....	15
4.2.2. Komunikazio edukiak:	15
4.2.2.1. Komunikazioari buruzko kexak eskumen-eremuan:.....	15
4.2.2.2. Eskumen-arrazoiengatik bideratu egin diren komunikazioari buruzko kexak:	16
4.3 BESTE HAINBAT EREMUREN GAINEKO KEXAK ETA SALAKETAK.....	16
5. 2017.URTEKO GOMENDIOEI JARRAIPENA:.....	27
6. KOORDINAZIO-ETA LANKIDETZA-MEKANISMOAK:.....	27

SARRERA

Urteko txosten honetan, Emakundek 2018an zehar sektore pribatuan berdintasun-printzipioaren eta sexuagatiko bereizkeriarik ezaren printzipioaren defentsarako eman dituen zerbitzuak azaltzen dira. Emakundek arlo honetan dituen funtzioak eta mugak otsailaren 16ko 3/2012 Legearen (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko Legea aldatzekoa) 64. eta 65. artikuluetan daude jasota, hurrenez hurren.

Aipatutako artikuluekin bat etorri, lau jarduketa mota gauzatu dira:

- Esparru orokorra.
- Eskatzaileei berehalako aholkularitza ematea, telefonoz edo aurrez aurre.
- Idatziz erantzuten diren eta aurretiazko azterlana eskatzen duten kontsultak.
- Kexa eta salaketen prozedurak.
- Koordinazio- eta kolaborazio-mekanismoak beste erakunde eta instituzio batzuekin.

Txostena lau ataletan egituratzen da. Lehenengoak sektore pribatuan sexuan oinarritutako diskriminazioa pairatu duten herritarrak defendatzeko jarduketa-esparru orokorra du hizpide, eta erantzun diren kontsulta, kexa eta salaketen datu orokorrak eskaintzen ditu; bigarrenak, eskaini diren berehalako aholkularitzen gaineko informazioa jasotzen du; hirugarrenak, idatziz erantzuten diren eta alde zuzeneko azterketa behar duten kontsulten gainean informatzen du. Azkenik, kexen eta salaketen gaineko prozedurak jasotzen dira. Azkenik, laugarrenean zehazten dira organismo eta erakundeen arteko koordinazio- eta lankidetzaren mekanismoak.

1. ESPARRU OROKORRA

Otsailaren 18ko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea sortzea xedatu zen, sexu-diskriminazioko egoeretan herritarrak defendatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren printzipioa betetzea sustatzeko organo gisa, eta bere funtzioak eremu pribatura mugatzen ziren.


Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legea eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko Legea aldatzen dituen otsailaren 16ko 3/2012 Legeak Defentsa-erakundea ezabatu zuen, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari bere edukia, eskumenak eta funtzioak esleitu zizkion; nolana ere, atxikipen organiko berria dela-eta, funtzioak pixka bat doitu ziren, eta, gaur egun, honako hauek ditu:


- a) Ikerketak egitea, ofizioz edo alderen batek eskaturik, sektore pribatuan ustez gertatutako sexuagatiko zuzeneko edo zeharkako diskriminazio-egoerak argitzeko.
- b) Negoziatzeko bideak ematea eta gomendioak egitea pertsona fisikoei nahiz juridikoei, sektore pribatuan sexu-diskriminazioko egoerak edo ekintzak zuzentzeko, eta gomendio horien jarraipena egitea, betetzen diren ala ez ikusteko.
- c) Herritarrei aholku ematea, sektore pribatuan sexu-diskriminazioko egoerak egon daitezkeenean.
- d) Bitarteko izatea jazarpen sexistaren kasuak konpontzen laguntzeko.
- e) Egiten dituen jardueren eta ikerketen berri ematea, eta txostenak eta irizpenak egitea, lege honetan xedatutakoarekin bat.
- f) Lan-arloko agintaritzarekin lankidetzan jardutea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan diskriminazioaren aurkako lan-arauak betetzen diren begiratzeko.

1.1 Artatutako kasuak, motaren arabera

Orokorrean, hauek dira herritarrei zuzeneko arreta emateko jarduketak, sektore pribatuan berdintasunaren eta bazterketa-ezaren printzipioa defendatzeko:

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundearen herritarrek aurkeztutako eskaerak kontsulta, kexa edo salaketa formatua dute. Idatziz erantzundako kontsultak, aurretiko azterlana behar dutenak, eta burututako kexa- eta salaketa-prozedurak, guztira 184 dira, eta horietatik 67 kontsultak izan dira (% 36), 82 kexak (% 45) eta 35 salaketak (% 19).





Eskatzaile gehienak posta elektronikoaren bidez komunikatu dira kontsultak eta salaketak egiteko. Aldiz, kexa gehienak publizitate eta komunikazio sexistei buruzko kexak igortzeko mugikorretarako Begira aplikazioaren bidez heldu dira.

Zerbitzu horrekin komunikatzeko gaztelania erabili da batez ere, erabiltzaileen % 85ek hori erabili baitute. Prozedura horien eskaera-egileen % 77 emakumeak izan dira, % 13 gizonak eta % 7 erakundeak, eta % 3 ofizioz hasi dira, eskubidearen titularra edo kasuaren xede-objektua dena dela.




1.2 Kasuen gaiak eta maiztasuna:

Goian aipatutako kasuen gaiei eta maiztasunari helduta, honako banaketa hau ikusten da:

Kontsulta-, kexa- eta salaketa-prozedurak eremu hauei buruzkoak dira nagusiki: komunikabideak eta publizitatea % 37, lan-eremua % 30, zerbitzuak % 16, kirol-eremua % 4, elkarten eremua % 2, eta, azkenik, bestelakoak % 11. Azken talde horretan, argi eta garbi, nagusi dira eremu pertsonalarekin lotutako kasuak (familia-arazoekin, dibortzioekin eta banaketekin). Lan-eremuko kontsultak amatasun-baimenekin eta edoskitzearekin dute batez ere zerikusia, baita familia- eta lan-bizitza uztartzetik eratorritako eskubideekin ere. Gainera, aurten, bereziki egin dute gora sexu-jazarpeneko eta sexuagatiko protokoloen onarpenari, garapenari eta aplikazioari buruzko kontsultek.

Eskaerak gaien arabera



2. BEREHALAKO AHOLKULARITZA:

Emakundek herritarrei arreta emateko ordutegi bat du, aurrez aurreko kontsultei zein telefono bidezko erantzutea xede. 2018. urtean, berehalako aholkularitza emateko 250 kontsulta baino gehiago erregistratu dira, aurrez aurrekoak zein telefono bidezkoak.

Aurrez aurreko arreta-zerbitzua etengabe eskaintzen da Emakunderen Gasteizko egoitzan eta, gainera, aldez aurretik hitzordua eskatuz arreta pertsonaleko zerbitzua ematen jarraitzen da Bilboko eta Donostiako egoitzetan.

Kontsulta horien gai nagusiak Etxeko Zerbitzarien araudiari buruzkoak dira. Lan-sektore horren gaineko araudiak eremu horretan lan egiten duten pertsonen, etxeko lanak ez ezik, lan egiten den «*familiako kideen zaintza edo arreta*» ere gauzatu behar dutela irizten du. Esparru horretako langile gehienak, guztiak ez esateagatik, emakumeak dira. Langile horiek, gainera, bereziki ahulak izaten dira, eta, beraz, gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan daude kasu gehienetan, askotariko bazterkeria pairatzen dute-eta. Eremu horrek arreta berezia behar duela uste dugu. Horrexegatik, aholkularitza espezializatua eskaintzen zaie, lan-eskubideak izan ditzaten eta, horrez gain, gure gizartean leku duin bat lor dezaten, zaintzaren sektoreari ekarpen handia egiten diote-eta.


Era berean, aholkularitza ematen zaio alderdi enplegatzaileari; izan ere, ez da ohiko enpresa bat. Ez direnez *ad hoc* enpresa kontratatzaileak, alderdi enplegatzaileak orientazioa eta aholkularitza eska diezaioke Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeari.

Esparru horretatik kanpo jasotzen diren kontsultak familiaren, lanaren, laguntzen, eta abarren gainekoak izaten dira.

Kontsulta horiek egin dituzten pertsonen profilarri dagokionez, % 5 gizonak izan dira eta gainerako % 95a, berriz, emakumeak.

3. IDATZIZ ERANTZUTEN DIREN ETA AURRETIAZKO AZTERLANA ESKATZEN DUTEN KONTSULTAK

Idatziz erantzundako kontsultak aurretiaz aztertu behar dira, eta 2018an 67 izan ziren guztira. Eskaera horiek aipatzen dituzten arazoak, besteak beste, lan-esparrukoak dira 41; kontsulta gehien izan duen hurrengo esparrua «Beste batzuk» izan da, 14. Azken esparru horretan berdintasun-eskubideen defentsarako arloari ez dagozkion gaiak planteatu dira, baina hala ere, eskaera horiek idatziz erantzun dira. Gehienetan, dibortzioen edo banaketen gaineko gaiak izan dira. Zerbitzuen eremuan 8 aholkularitza zenbatu dira; horietatik 2 elkarteen eremuari dagozkio; eta azkenik, idatziz erantzun dira publizitateari buruzko bi kontsulta.



Lan-eremuan, aurtan, enpresetan sexu-jazarpeneko eta sexuagatiko protokoloak egitearen eta martxan jartzearen gainekoak nabarmentzen ditugu.

4. KEXEN ETA SALAKETEN PROZEDURAK:

Gaur egun, zabala eta konplexua da sexuan oinarritutako diskriminazio-egoeretan dauden herritarrak defendatzeko jarduketaren esparru juridikoa. Jarraian aipatzen da zein diren, orokorrean, berdintasunerako eta sexuan oinarritutako diskriminaziorik ezerako eskubidearen alde egitea babesten duten **oinarrizko arauak**:

- Emakumearen aurkako Bazterkeria Modu guztiak Ezabatzeko Hitzarmena (CEDAW); NBEren esparruan hartutako nazioarteko arau hori dela bide, estatu sinatzaileek, bitarteko egoki guztien bidez eta luzapenik gabe, emakumeen kontrako diskriminazioa ezabatzeko politika jarraitzea hitzartu dute. Hori horrela: «Emakumearen aurkako diskriminazioa» esamoldeak agertuko du sexuan oinarritutako diskriminazio, bazterketa edo murrizketa oro, halakoen xedea edo ondorioa denean kaltetzea edo deuseztatzea (politika-, ekonomia-, gizarte- nahiz kultura-esparruetan, esparru zibilean edo beste

edozein esparrutan) emakumeari aitortutako giza eskubide eta oinarrizko askatasunak, eta horien izatea eta egikaritzea, haren egoera zibila gorabehera, gizonaren eta emakumearen arteko berdintasuna oinarri.

- 1978ko Espainiako Konstituzioa; horren 14. artikulua ezartzen du espainiarrak berdinak direla legearen aurrean, eta ezin dela sexu-diskriminazioa gailendu.
- Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Eraginkorrari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak xedatzen du emakume eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioak edozein motatako diskriminazioa baztertzeko duela, zuzeneko edo zeharkakoa izan, sexu arrazoia gatik eta, batez ere, amatasunaren, familia-betebeharrak hartzearen eta egoera zibilaren ondoriozkoak.
- Tratu-berdintasunaren printzipioaren barruan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak –3/2012 Legeak aldatuta– pertsonen sexuan oinarritutako diskriminazio oro debekatzen du, zuzena ala zeharkakoa izan eta horretarako erabiltzen den modua edozein dela ere.

4.1. KEXEN ETA SALAKETEN PROZEDURAK:

2018. urtean berdintasun-eskubideen defentsarako arlo horrek kexen 82 prozedura eta salaketen beste 35 prozedura landu ditu. Eskara horiek gehienak publizitatearen eta komunikabideen gainekoak dira (67).

Espediente guztietatik, 50 gomendio bidali dira, emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-berdintasuna sustatze eta bermatze aldera. 61 espediente beste instituzio batzuetara bidali dira, eta bidalitako kexa gehienak publizitatearen edo komunikabideen gainean izan zirenez, horietatik 35 Madrilgo Emakumearen eta Aukera-berdintasunaren Institutuko Emakumeen Irudiaren Behatokia bidali ziren, kexa horiek aztertu eta bideratu zitzaizkien. Gainera, Institut Català de les Dones erakundera, Arartekora eta Lan Ikuskaritzara igorri dira hainbat kexa.

6 eskaera artxibatu dira, gehienetan planteatutako gaia sexuagatiko diskriminazioaren esparruan sartzen ez zelako, eta kasu bitan eskaera bidali dutenek ikerketa-prozedura bat hasi ahal izateko eskatu zaien informazio gehigarria ez dutelako bidali.

Komunikabideak eta publizitatea:

Herritarren eskubideen defentsarako esparruaren eta Begira Batzordearen arteko lankidetzabetebeharra dela medio, herritarrek publizitatearen eta komunikabideen gainean aurkeztutako kexak eta Batzordeak berak ofizioz planteatzen dituen kexak kudeatu ditu Defentsarako Arloak.

4.2. KOMUNIKAZIOAREN ETA PUBLIZITATEAREN INGURUKO 2018KO KEXEN ESPEDIENTEEI BURUZKO EKARPENAK ETA KONTRASTEAK

2018an 69 kexa-espediente eta aholkularitza-kontsulta izapidetu dira sektore pribatuko komunikazioaren eta publizitatearen eremuan. Jasotako kexetan oinarrituta, BEGIRAK 29 gomendio igorri dizkie zenbait erakunderi. Aldeek kode deontologikoa eta dekalogoak aplikatzea dute oinarri gomendio horiek. 35 eskaera bideratu dira, batez ere, Madrilgo Irudiaren Behatokia, baina baita Institut Català de les Dones-era, Emakumearen Galiziako Institutura eta Emakumearen Andaluziako Institutura ere. Bi kasutan publizitatea berehala kentzeko eskatu da (Perseus Diskoteka eta Grupo Imagine-Master Mass Media). Publizitateari buruzko 2 aholku-eskaerari erantzun zaio. Azkenik, eskaera bat artxibatu da, Begiraren eskumeneko ez den gaia jasotzeagatik.

Kexaren bat jartzen duten pertsonen profila honakoa da, oro har: emakumea; 31 eta 40 urte artekoa; unibertsitate-ikasketak eta lanaldi osoko lanpostua dituen. Profil hori berdina izan da azken urteetan.

Kexa motaren arabera, (publizitatea edo komunikazioa), gehiago dira publizitatearen arloko kexak komunikazioaren arlokoak baino. Publizitatearen esparruan, kexa gehienak, ustez genero-estereotipoak eta -rolak indartzen zituzten iragarkien gainean egin dira, hala nola gazte, argal eta gorputz perfektuko izatearekin lotzen den edertasun-eredu bakar bat islatu eta emakumeen gorputza gauza bihurtzen duten iragarkien gainean, eta neurri txikiago batean, emakumearen aurkako indarkeriarekin lotutako jarrerak edo jokabideak justifikatzearen gainean.

Komunikazioaren esparruan, batez ere, emakumeen aurkako indarkeria hutsaltzearekin lotutako kexak helarazi dira.

Herritarrek hainbat bide dituzte kexak igortzeko. Zehazki, 2018an jaso ziren 67 eskaeretatik 52 gailu mugikorretarako Begira aplikazioaren bidez bidali ziren.

Herritarrek erakunde honekin erlazionatzeko aukeratutako hizkuntzari dagokionez: eskaera gehienak gaztelaniaz daude (59), euskaraz (8) eta bi kasutan, eskaerak bi hizkuntza ofizialetan bidali dira.

Jasotako kexak, bai publizitateari buruzkoak bai komunikazioari buruzkoak, 2018an indarrean zeuden inprimaketako puntuetan oinarrituta aztertu eta sailkatu dira:

Publizitate sexistaren inguruko kexak jasotzeko inprimakia:

http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/temas_medios_intro/eu_def/adjuntos/inprimakia_publicidade_sexista.pdf

Komunikazio sexistaren inguruko kexak jasotzeko inprimakia:

http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/temas_medios_intro/eu_def/adjuntos/inprimakia_komunikazio_sexista.pdf

4.2.1. Publizitateari buruz jasotako kexak, edukien tipologiaren arabera

Erabilera sexista mota nagusiak hauek izan dira: emakumeen gorputza erabiltzea objektu estetiko/sexual gisa eta gaztetasunean eta osasunerako jarrera kaltegarriak ere susta ditzaketen gorputz-ereduetan oinarritutako edertasun-ereduak bultzatzea.

4.2.1.1. Publizitateari buruzko kexak Defentsa eremuaren eskumen-eremuaren baitan

Jasotako kexetan oinarrituta, BEGIRAK gomendioak bidali dizkie egoitza soziala EAEn duten hainbat erakunderi. Gomendio guztiak publizitate-dekalogoaren aplikazioan oinarritzen dira.

Besteak beste, enpresa hauei bidali zaizkie gomendioak: Basic Fit Gimnasios, Kristau Eskola, Abando Garbiketak, Eibarko Triatloi Taldea, Efeuve Fachadas, *El Nervión*, La Gula del Norte, Sala VIP, Eroski, Kutxabank, Decathlon (Barakaldo), SanPru Higiezin Enpresa, Nazaret, Allende Burdindegia, Keyser, Living Night Club, Emari Coworking.



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eragunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



¿Quieres vender una vivienda?

Te ofrecemos....

- Fotos profesionales
- Vídeo visita en calidad 4K
- Tour virtual en 8K... "Imagina lo imposible"

Y además.....

- Agentes inmobiliarios
- Abogado
- Alta en 24 portales inmobiliarios
- Certificado energético "Gratis"
- Valoramos tu casa "Gratis"

Máxima innovación inmobiliaria al alcance de tu mano.

www.sampru.es

¡¡LLAMANOS!!

617 385 902
667 711 082
943 034 723



4.2.1.2. Eskumen-arrazoiengatik bideratu diren publizitateari buruzko kexak:

BEGIRA batzordearen jarduketarako lurralde-eremua EAE da eta, beraz, gure erkidegoan egoitza duten erakunde publiko eta pribatuak (bai publizitate eremua bai komunikazioarena).

Halere, era guztietako kexak jasotzen dira, aztertu egiten dira eta Batzordearen eskumen-eremutik kanpo badaude, eskumena duen organora bideratzen dira kexa bidali duen pertsonaren berariazko baimenarekin. Ildo horretan, kexak jaso dituzten enpresa iragarleak hauek izan dira: Playboy perfumeak, Zara, El Corte Ingles, La tienda en casa, The first, Leroy Merlin, Laliga, Playmobil, Burguer King, Hamer Fitness, Dia, Xti, Danone, Festina, Olika-Stone, Adol Fomingues, HG Garbiketa Produktuak, Master Digital Bussiness, Huesitos, Compracoches.es, Bravolotto, Juguettos-en jostailu-katalogoa.



Playmobil



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



Xti oinetako-marka



Hammer Fitness



Master Digital Business

4.2.1.3 Publizitatea eteteko eskaerak:

Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak bi kasutan eskatu du iragarkia berehala eteteko:

- Perseus diskoteka: 2018ko San Prudentzio Jaia ospatzeko minigonen lehiaketa bat sustatzeko hainbat komunikabidetan agertu zen iragarkia. Kartel iragarleak emakumearen duintasunari erasotzen ziola ulertu zen, eta beraz, publizitate sexistatzat jo zitekeen; beraz, publizitate- eta berdintasun-arloko arauak aplikatuz Perseus Diskotekari eskatu zitzaion publizitate hori berehala eteteko.
- Imagine Grupo, Mass Media. Komunikazio eta Teknologia berrien arloko Graduondokoak: beren masterrak iragartzeko 3Dn egindako fantasiazko komikietako pertsonaia batez baliatu ziren. Pertsonaia horrek, fikziozkoa izan arren, emakume hipersexualizatu eta estereotipatua irudikatzen du. Aipatutako iragarki hori emakumearen duintasunari erasotzen dion kasu bat da, eta, beraz, publizitate sexistatzat jo daiteke. Horrenbestez, eta publizitate- eta berdintasunaren-arloko arauak aplikatuta, IMAGINE GRUPO, Mass Media, Komunikazio eta Teknologia Berrien arloko Graduondokoak merkataritza-enpresari iragarki hori berehala eteteko eskatu zitzaion.

4.2.2. Komunikazioaren edukiak:

Komunikazioaren eremuan, gizonen protagonismo handiagoa ematen dieten edo zuzenean emakumeak ikusezin bihurtzen dituzten albisteen gainean izan dira kexa gehienak, irudiengatik nahiz kontaeragatik. Kexak eragin dituzte, halaber, emakumeak eta gizonak modu ezberdinean eta estereotipuan azaltzen dituzten albisteek.

4.2.2.1. Komunikazioari buruzko kexak eskumen-eremuan:

Lehen aipatu den bezala, BEGIRA batzordeak ez dauka berariazko funtziorik kexak jasotzeko komunikazioaren alorrean. Halere, eta esleitutako gainerako funtzioak garatzeko, komunikabideek emakumeen eta gizonen berdintasunarekin bat egiten duten edukiak eman ditzatela sustatzeari dagokionez, kexa horiek bi helbururekin jasotzen dira: lehenik, gomendioak bidaltzeko eta

komunikabideetan eremu hauetan sentsibilizazio-estrategiak garatzeko eta, bigarrenik, detektatzeko zein eduki mota diren audientziak gutxien onartzen dituenak.

EAEko komunikabideen artean, enpresa hauei bidali zaizkie gomendioak: *El Correo*, *Deia*, *El Diario Vasco*, *El Nervión*.

4.2.2.2. Eskumen-arrazoiengatik bideratu egin diren komunikazioari buruzko kexak:

Publizitatearen eremuan bezala, komunikazio-eremuan ere BEGIRAREN eskumenaren-eremutik kanpo dauden kexak jasotzen dira. Kexa horiek, beraz, dagozkien erakundeei bideratzen zaizkie. Gehienak estatuko Emakumearen Institutuari, eta kasuren batean Institut Català de les Dones erakundeari. Kexak komunikabide hauen ingurukoak izan dira: *Marca*, Antena 3 (Albistek), *ABC*, Huffost, Tele5 (*Gran Hermano VIP*), Mediaset, Radio Ser.

4.3. BESTE HAINBAT EREMUREN GAINEKO KEXAK ETA SALAKETAK:

Lan-eremua:

Hainbat dira **lan-eremuaren** inguruko jaso diren kexa eta salaketak, gai hauei buruzkoak: bizi pertsonala eta familiarra eta lan-bizitza kontziliatzeko eskubideak baliatzea; aitatasun edo amatasunagatiko diskriminazioa, eta sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena, eta abar.

Hori horrela, aplikazio bereziko arau gisa honako hauek aipatuko ditugu:

- Langileen Estatutua; 17. artikuluari jarraikiz, nuluak izango dira sexuagatiko zuzeneko edo zeharkako diskriminazio-egoerak dakartzaten erregelamendu, hitzarmen, itun eta erabakiak.
- 39/1999 Legea, azaroaren 5koa, Langileen familia- eta lan-bizitza uztartzea sustatzekoa. Lege hori oso garrantzitsua izan da, legegintza-aldaketak ekarri baititu lan-arloan, langileen lan- eta familia-erantzukizunak uztartzea errazteko.

- 56/2003 Legea, abenduaren 16koa, Enpleguarena; eta horren 22 bis artikulua, enplegua lortzeko diskriminazioa debekatzen duena.
- 1620/2011 Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Familia-etxeko zerbitzuaren izaera bereziko lan-harremana arautzen duena.

Hona hemen Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Herritarren Berdintasunerako eskubideak Defendatzeko Arloan jarritako kexa eta salaketen zerrenda, erakundearen esku-hartzea eta esku-hartzen horren emaitza.

Q20180031 espedientea	
Kexaren arrazoa	Lanbidek argitaratutako lan-eskaintza sexista
Emaitza	Lanbidera bideratu da, eta gomendioak eman zaizkio

Q2018045 espedientea	
Kexaren arrazoa	Eskola publiko bateko emakumezko irakasleak arazoak ditu ordutegia zehazteko, legezko zaintzagatiko murrizketarako eskubidea erabili nahi duelako.
Emaitza	Arartekora bideratua

Q20180048 espedientea	
Kexaren arrazoa	Bikotekide ohiarekin batera lan egiten duen emakumeak bitartekaritza-lanak eskatzen ditu enpresarekin, lanpostua mugitzea eskatzen duenean.
Emaitza	Bitartekaritza



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Q20180079 espedientea	
Kexaren arrazoa	Ustezko sexu-jazarpena lantokian
Emaitza	Bideratzea

Q20180080 espedientea	
Kexaren arrazoa	Eskola publiko bateko emakumezko langile bati ikastaro batean parte hartzea ukatzen diote amatasun-bajan dagoelako
Emaitza	Arartekora bideratua

Q20180109 espedientea	
Kexaren arrazoa	Emakume batek egindako lan-elkarrizketan, familia-bizitzan eta bizitza pertsonalean ardaizten dira galderak
Emaitza	Ebazpena

Q20180117 espedientea	
Kexaren arrazoa	Sexuagatiko ustezko bazterkeria emakumezko ertzain bat lantokian mailaz igotzeko
Emaitza	Bideratzea

D20180001 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Sexuagatiko ustezko bazterkeria, emakumeen kasuan, Lanbideren ikastaroen baremazioan
Emaitza	Arartekora eta Lanbidera bideratua
D20180104 espedientea	



Salaketaren arrazoa	Ustezko bazterkeria lantokian mailaz igotzeko
Eraitza	Bazterkeria balioetsi da - Gomendioa

D20180114 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Sindikatu batek salatu egiten du legezko zaintzagatiko lanaldi murrizketaren eskubidea ukatu izana Bilboko polizia-etxe bateko langileei (funtzionarioak)
Eraitza	Arartekora bideratua

D20180131 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Ertzaintzan ustezko bazterkeria, lantokian mailaz igotzeko
Eraitza	Arartekora bideratua

D20180153 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Beste enpresa batean segurtasun-zaintzaile funtzioak dituen gizonezko langile baten aldetik jazarpena egon dela salatzen da
Eraitza	Artxibatzea

D20180184 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Lan-eskaintza sexista Gasteizko saltoki batean
Eraitza	Gomendioa

Elkarteen Esparrua:

Esparru horri dagokionez, kexa bat aurkeztu da Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Herritarren Berdintasunerako eskubideak Defendatzeko Arloan.

Q20180043 espedientea	
Kexaren arrazoa	Emakume batek oinordetzan jaso nahi du aitaren kidetza elkarte gastronomiko batean
Eraitza	Sexuagatiko zuzeneko bazterkeria - gomendioak igorri dira

Kirol-eremua:

Q20180147 espedientea	
Kexaren arrazoa	Emakumezko areto-futboleko taldeek beren lurraldeko Federazioa salatzen dute laguntzak modu desberdinean banatzeagatik
Eraitza	Instrukzio-prozesuan dago

D20180078 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Segurtasun-langile baten tratu sexista San Mamesen
Eraitza	Gomendioa

D20180134 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Sexuagatiko bazterkeria Gernikako pultsu-txapelketan
Eraitza	Gomendioa

Zerbitzuen eremua eta beste:

Kategoria horretan kasuistika zabala sartzen da, besteak beste: seinaletika, hizkuntza, erakusleihopainketa, taldeen jokabideak, etab. Denetan gertatzen dira praktika sexistak, eta nahiz eta sarritan egoera oso sotilak izan edo ohikoak direlako oharkabean pasatzen diren egoerak izan, genero-egberdintasunak betikotzen jarraitzen dute.

Eremu horiei dagokienez, hona hemen Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Herritarren Berdintasunerako eskubideak Defendatzeko Arloan jarritako kexa eta salaketen zerrenda, erakundearen esku-hartze mota eta esku-hartze horren emaitza.

Q20180053 espedientea	
Kexaren arrazoa	Zerbitzu publiko bateko emakumezko langile batek emandako tratu misoginoa
Emaitza	Arartekora bideratua

Q20180054 espedientea	
Kexaren arrazoa	Zerbitzu publiko batean erabilitako hizkera sexista
Emaitza	Arartekora bideratua

Q2018123 espedientea	
Kexaren arrazoa	Hiru adin txikikoren amak seme-alabak ikastetxe bakarrean egotea eskatu du
Emaitza	Arartekora bideratua



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Q20180132 espedientea	
Kexaren arrazoia	Osakidetzako ospitale batean erditzean pairatutako tratua
Emaitza	Arartekora bideratua

D20180018 espedientea	
Salaketaren arrazoia	Ama gurasobakar batek tratu baztertzaila salatu du udal-polikiroldegi bateko familia-abonamenduetan
Emaitza	Arartekora bideratua

D20180024 espedientea	
Salaketaren arrazoia	Salatzaileak bizi den udalerriko inguru bat iluna, isolatua eta arriskutsua dela salatu du
Emaitza	Arartekora bideratua

D20180072 espedientea	
Salaketaren arrazoia	Bere tabernan egiten diren txiste matxisten aurkako salaketa
Emaitza	Gomendioa

D20180091 espedientea	
Salaketaren arrazoia	Hizkera sexista Renfeko billeteetan Haurrentzako billetean «niños» hitza soilik ageri da
Emaitza	Madrilgo Emakumearen Erakundera bideratu da

D20180093 espedientea	
-----------------------	--



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Salaketaren arrazoa	Trébol Clan taldearen ikuskizunaren aurkako salaketa, Bilboko diskoteka batean parte hartu ondoren
Eraitza	Emanaldia bertan behera uztea eskatzen da

D20180103 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Bilboko saltoki batean maniki «anorexikoak» erakusten dira
Eraitza	Gomendioa

D20180107 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Kutxabanakeko web orrian hizkera sexista erabiltzen da
Eraitza	Gomendioa

D20180108 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Iberdrolako web orrian hizkera sexista erabiltzen da
Eraitza	Gomendioa

D20180110 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Organismo batek argitaratutako gidan hizkera sexista erabiltzen da
Eraitza	Gomendioa

D20180111 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Osakidetzaren informazio batean irudi sexistak erabiltzen dira
Eraitza	Osakidetzara bideratu da



Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

D20180116 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Foru-titulartasuneko bide batean gune arriskutsu bat dago
Emaitza	Arartekora bideratua

D20180129 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Mezu sexistak dituzten kamiseten salmenta
Emaitza	Madrilgo Emakumearen Erakundera bideratu da

D20180130 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Txirringularitzako Euskadi Fundazioak ez du saltzen emakumeentzako jantzirik
Emaitza	Gomendioa

D20180136 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Udal-informazio batean hizkera sexista erabili da
Emaitza	Arartekora bideratua

D20180140 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Udaleko informazio-batzorde batean ordezkapen desorekatua dago
Emaitza	Udaleko berdintasun teknikariari bideratu zaio



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

D20180152 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Diskoteka bateko segurtasun-zaindari batek emandako tratuari buruzko salaketa
Emaitza	Gomendioa

D20180154 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Estatuko gobernuak agindutako pentsio-igoerak ez du aurreikusten eskubide subjektiborik bestelako pentsio motaren bat izan dezaketen genero-indarkeriaren biktimenezako
Emaitza	Madrilgo Emakumearen Erakundera bideratu da

D20180155 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Arabako Foru Aldundian errentaren aitortpena egiteko programa informatikoan, lehenespenez, titularra gizonezkoa da, eta ezkontidea emakumea.
Emaitza	Gomendioa

D20180158 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Ekintza positiboak Euskadiko Atletismo Federazioaren aldetik
Emaitza	Artxibatuta



Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

D20180161 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Kirol-lehiaketa batek sari desberdinak ematen ditu sexu bakoitzarentzat.
Eraitza	Gomendioa

D20180163 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Bilboko jatetxe bateko lan eskaintza sexista
Eraitza	Gomendioa

D20180177 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Mezu eta irudi estereotipatuak eta genero-rolak haurrentzako liburu batean
Eraitza	Gomendioa

D20180180 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Eduki sexista Olentzeroren etxean hurrei egin zitzaie Mari Domingiren aurkezpenean
Eraitza	Gomendioa

D20180183 espedientea	
Salaketaren arrazoa	Genero-rolen erreproduzio sexista eta estereotipua erakusleihen batean
Eraitza	Gomendioa

5. 2017. URTEKO GOMENDIOEI JARRAIPENA:

2018. urtean, 2017. urtean bideratutako gomendioen jarraipena egiten da. Bidalitako jarraipen-errekerimendu guztietatik, 5 kasutan lortu da erantzuna. Kasu horietan guztietan, igorritako aholkuarekin konpromisoa hartu dutela erakutsi dute entitateek.

6. KOORDINAZIO- ETA LANKIDETZA-MEKANISMOAK:

Beste erakunde batzuekiko harremana dela-eta, 2018. urtean harremanak eta bilerak izan dira erakunde publikoekin, lankidetzeta-mekanismoak ezartzeko.

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearekin elkarlanean ari gara; hala, hainbat lan- eta koordinazio-bilera egin dira.

Emakunderen eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzako Lan-ikuskaritza eta Gizarte Segurantzako zuzendariordetzaren arteko Lankidetzeta Hitzarmenaren esparruan, hainbat kexa bideratu zaizkio erakunde horri, beren eskumenekoak zirenez. Era berean, bilera tekniko-politiko bat egin da sail horrekin.

Azkenik, EHUko Zuzenbide Fakultateko Justizia Sozialaren Klinika Juridikoarekin elkarlanean jarraitzen da. Klinika hori unibertsitate arloan diskriminazioaren kontrako estrategiak diseinatzeko eta giza eskubideak defendatzeko laborategi bat da, eta Zuzenbidearen ikaskuntza eta eraldaketa pedagogikorako esparru bat da aldi berean.